

## EL VASCUENCE EN LA EDAD MEDIA

(José María Lacarra, 1957)

Artikulu honetan euskarak Erdi Aroan zuen presentziaz dihardu Lacarra historiagileak.

Lehen lekukotasuna Aymeric Picaud-ek ematen digu XII. Mendean hiztegi txiki baten bitartez, eta XV eta XVI. mendeetan hasten dira agertzen lehen testu narratiboak. Garai horien aurretik toponimia eta antroponimia besterik ez daukagu. Hori bai toponimia hori, oso ezberdina da Euskal Herriaren inguruko herriein alderatuta.

Badirudi, I. mendean penintsulan hizkuntza asko hitz egiten zirela, erabat ezberdinak eta gaur ulertzen ez ditugunak.

Erromatarren garaian, euskal hiztunen komunitatea, menperatutako jendea zen, maila baxukoa, landa eremuetan bizi zena eta sakabanatuak.

Garaiko idatzi guztiak latinez ematen baziren ere, dokumentu hauen idazleak edo notarioak kontziente ziren inguruko jendea beste hizkuntza batean mintzo zela, izan ere, testuaren zenbait azalpenetarako euskara aipatzen zuten.

VII. Mendean Euskal Herria kristianizatzen saiatu ziren latinez, baina hizkuntza ulergaitza zenez bertakoentzat, kristianizatzeko hori erromanizazioa iristen zen mugetara soilik iritsi zen. Aurrerago egon zen kristianizazioa Euskal Herrian baina euskarazko predikazioarekin.

Europar idatziak bakoitza beren hizkuntzetan idazten hasi zirenean latina albo batera utziz, Euskal Herrian ez zen horrelakorik eman eta latinez edo erromantzez ematen jarraitu ziren. Dirudienez, hizkuntza hauek ulergarriak ziren Nafarroako Erreinuako biztanle askorentzat. Dena den, Erreinuaren barnealdea erabat euskalduna zela badakigu. Hala ere, oso garaiz iritsi zen erromanizazioa Nafarroako zenbait herritara, batez ere, Iruña eta Araba arteko ibilbidea igarotzen zen inguruetara.

Ipar-ekialdeko biztanleria nahiko urria zela pentsa daiteke garai hartan, baserrietan bizi ziren barnealdeko biztanleriaz dihardugu, kanpoko jendearekin kontaktu askorik gabekoa eta berrikuntzetara eta berrikuntzei atea itxita zeukatena, honek bertako hizkuntzaren mantentzea errazten zuen.

Erdialdea, Sanguesatik Lizarra aldera, Nafarroako Erreinuaren lehen garaietan erabat euskaldunak zen. Artaxona, Larraga, Mendigorria eta Mirandari dagokionez, Lizarra aldetik iritsi zen emigrazioaren eraginez batez ere, euskara oso ohikoa izan da duela oso gutxira arte. Lizarratik Montejurra ingurura, hegoaldera, (Arroniz, Arellano, Dicastillo, Allo), XII eta XIII mendeetan euskara zela hizkuntza nagusia pentsa dezakegu bertako toponimiari eta abizenei erreparatuz. Oraindik ere toponimiak neurri batean euskalduna izaten jarraitzen du, horren adibide dira *Reca* edo *Castiluzar* bezalako izenak.

Logroño aldera aldir, egoera oso ezberdina zen, bertako euskal dokumentazioa oso urria da. Los Arcos izan daiteke euskararen muga hegoaldera.

Erromako inperioaren erorketak edo errekonkistak eragin handia izan zuten euskararen erabileran. Logikoki, Erromatar inperioaren erortzearekin batera euskarak gora egin zuen. Honek argi uzten du, garaiko mugimenduek eragina izan zutela euskararengan.

Caro Barojak dionez, *-ain* batekin amaitzen diren Gipuzkoako eta Arabako herriek, garai bateko Nafarrek herri hauetara eginiko emigrazio mugimenduak erakusten dituzte. Gainera, Zumaia edo Usurbil bezalako herriak Orreagaren menpe egon ziren, honelako datuek arraroak diruditen zenbait lotura linguistiko azaldu ditzakete.

Bestalde, aipagarria da, euskararekin eta erromantze nafararekin batera hirugarren hizkuntza bat izan zela; “provenzal” deritzona, “francos” deituriko atzerritarrek ekarria. Iruñeako, Sangesako eta Lizarrako idatzi asko ageri dira hizkuntza horretan, honek adierazten du, inguru hauetan hiru hizkuntza hitz egiten zirela.

Ondoren, artikulua idazleak, euskararen antzinako forma eraikitzearen garrantziaz dihardu, beste hizkuntzekin erkatu eta ahaideak aurkitzeko askoz baliagarriagoa izango delakoan. Eraikitze honetan erdi aroko testuek, non, toponimia, onomastika eta pertsona izen euskaldunak oso ugariak diren, asko lagun diezagukete. Izen hauek ez digute gramatika eraikitzen lagunduko baina hiztegiaren zati handi bat erraztuko digute. Batez ere, interes handikoa da toponimia txikia deritzoguna.

Amaitzeko, toponimiaren azterketarako oso baliagarriak izan daitezkeen zenbait monasterio eta dokumentazioaren izenak aipatzen ditu bertan aurki daitezkeen zenbait adibiderek. Laburpen honetan monasterioen eta dokumentuen izenak bakarrik aipatuko ditut, adibideak ipinita oso luze geratu baitaiteke: Leireko monasterioko artxiboa, Iratxe monasterioko artxiboa, Irantzuko “fondo documental”, San Miguel Excelsis-eko dokumentazioa, Orreagako dokumentazioa, San Juan De La Peña-ko monasteriokoa, Iruñeako katedralekoa, La Oliva-ko monasteriokoa, Tudela-ko katedralekoa, Artaxonakoa, Nafarroako Artxibo Orokorra, “Archivo de la Orden de San Juan de Jerusalem”-goa, Donemiliagako monasteriokoa, Valvanerako kartularioa, Calahorra-ko katedralekoa, Najera-koa, Santo Domingo de la Calzada-koa, Valpueda-koa eta Saint Jean de Sorde-ko kartularioa aipatzen ditu.

Aipagarria da Euskal Herriko barnealdean ez dagoela ia batere dokumenturik.